

**KIROL ZERBITZU ETA
INSTALAZIOEN ARAUDIA**

**TOLOSAKO UDALEKO
KIROL-ZERBITZUA**

**REGLAMENTO DE
SERVICIOS E
INSTALACIONES
DEPORTIVAS**

**SERVICIO MUNICIPAL DE
DEPORTES
DE TOLOSA**

Eginbidea, adierazteko agiri hau
T Lantzen, S.A.,-ko Administrazio Kontseiluak
2016ko abenduaren 13an onartu zuela
Tolosa, 2017ko urtarrilaren an
Idazkaria:

<p>AURKIBIDEA</p> <p>ARRAZOEN AZALPENA <i>(Orrialdeak)</i></p> <p>ATARIKO TITULUA <i>(Orrialdea)</i></p> <p>1. artikulua.- Xedea 2. artikulua.- Aplikazio-eremua 3. artikulua.- Instalazioen lehentasunezko erabilera 4. artikulua.- Jasangarritasuna eta kalitatezko kudeaketa 5. artikulua.- Kudeaketaren kontrola</p> <p>I. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK <i>(Orrialdeak)</i></p> <p>1. KAPITULUA. ERABILTZAILEAK <i>(Orrialdeak)</i></p> <p>6. artikulua.- Erabiltzaileak 7. artikulua.- Erabiltzaile bazkideak 8. artikulua.- Talde erabiltzaileak 9. artikulua.- Erabiltzaile ez bazkideak 10. artikulua.- Ikastaro-egileak 11. artikulua.- Ikusleak 12. artikulua.- Erabiltzaile-izaeraren galtzea</p> <p>2. KAPITULUA. ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK, BETEBEHARRAK ETA ERANTZUKIZUNAK <i>(Orrialdeak)</i></p> <p>13. artikulua.- Erabiltzaileen eskubideak 14. artikulua.- Erabiltzaileen betebeharrak 15. artikulua.- Erantzukizunak</p> <p>3. KAPITULUA. KIROL-INSTALAZIO GUZTIAK ERABILTZeko ARAU KOMUNAK <i>(Orrialdeak)</i></p> <p>16. artikulua.- Kirol-instalazioetara sartzea 17. artikulua.- Kirol-instalazioetarako sarreren kontrola 18. artikulua.- Kirol-instalazioak erabiltzeko arauak 19. artikulua.- Armairu-zerbitzua eta aldagelak 20. artikulua.- Taberna eta/edo kafetegia 21. artikulua.- Kirol-instalazio edo kiro-guneen erreserba 22. artikulua.- Instalazioetako publizitatea</p> <p>4. KAPITULUA. KEXAK, IRADOKIZUNAK, INFORMAZIO-ESKAERAK ETA ERREKLAMAZIOAK <i>(Orrialdeak eta)</i></p> <p>23. artikulua.- Kalteengatik Administrazioak duen erantzukizuna 24. artikulua.- Tolosako Udalak kexak, iradokizunak, informazio-eskaerak eta erreklamazioak bideratzea</p> <p>5. KAPITULUA. ZEHATZeko ARAUBIDEA <i>(Orrialdeak)</i></p> <p>25. artikulua.- Ordena berrezartzeko neurriak 26. artikulua.- Arau-hausteak eta zehapenak</p>	<p>ÍNDICE</p> <p>EXPOSICIÓN DE MOTIVOS <i>(Páginas)</i></p> <p>TÍTULO PRELIMINAR <i>(Página)</i></p> <p>Artículo 1.- Objeto Artículo 2.- Ámbito de aplicación Artículo 3.- Uso prioritario de las instalaciones Artículo 4.- Sostenibilidad y gestión de calidad. Artículo 5.- Control de la gestión</p> <p>TÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES <i>(Páginas a)</i></p> <p>CAPÍTULO 1. DE LAS PERSONAS USUARIAS <i>(Páginas a)</i></p> <p>Artículo 6. De las Personas Usuarias Artículo 7. De las personas usuarias abonadas Artículo 8. De las personas usuarias colectivas Artículo 9. De las personas usuarias no abonadas Artículo 10. De las personas cursillistas Artículo 11. De los espectadores/-as Artículo 12.- Pérdida de la condición de persona usuaria</p> <p>CAPÍTULO 2. DERECHOS, OBLIGACIONES Y RESPONSABILIDADES LAS PERSONAS USUARIAS <i>(Páginas a)</i></p> <p>Artículo 13.- Derechos de las personas usuarias Artículo 14.- Obligaciones de las personas usuarias Artículo 15.- Responsabilidades</p> <p>CAPÍTULO 3. DE LAS NORMAS COMUNES DE UTILIZACIÓN DE TODAS LAS INSTALACIONES DEPORTIVAS <i>(Páginas a)</i></p> <p>Artículo 16. Acceso a las instalaciones deportivas Artículo 17. Control de accesos a las instalaciones deportivas Artículo 18. Normas de uso las instalaciones deportivas Artículo 19.- El servicio de taquillas y los vestuarios Artículo 20.- Servicios de bar y/o cafetería Artículo 21.-Reserva de instalaciones o espacios deportivos Artículo 22.- Publicidad en las instalaciones</p> <p>CAPÍTULO 4. QUEJAS, SUGERENCIAS, PETICIONES DE INFORMACIÓN Y RECLAMACIONES <i>(Páginas y)</i></p> <p>Artículo 23.- Responsabilidad de la Administración por daños Artículo 24.- Tramitación de las quejas, sugerencias solicitudes de información y reclamaciones por el Patronato</p> <p>CAPÍTULO 5. RÉGIMEN SANCIONADOR <i>(Páginas a)</i></p> <p>Artículo 25.- Medidas para restablecer el orden Artículo 26.- Infracciones y sanciones</p>
--	---

<p>27. artikulua.- Zehapen-espedienteen izapideak</p> <p>II. TITULUA. KIROL-INSTALAZIO BAKOITZAREN BERARIAZKO ERABILERA-ARAUAK <i>(Orrialdeak eta)</i></p> <p>1. KAPITULUA. GUNE LEHORRA <i>(orrialdeak eta)</i></p> <p>28. artikulua.- Arau orokorrak 29. artikulua.- Pista estaliak, frontoi estaliak, futbol-zelaiak eta kirol-instalazio itxiak erabiltzeko arauak 30. artikulua.- Murrizketak eta debekuak pista estaliak eta futbol-zelaiak erabiltzeko 31. artikulua.- Gimnasia- eta muskulazio-aretoak erabiltzeko arauak. 32. artikulua.- Murrizketak eta debekuak gimnasia- eta muskulazio-aretoak erabiltzeko 33. artikulua.- Arte martzialen aretoak erabiltzeko arauak 34. artikulua.- Murrizketak eta debekuak arte martzialen aretoak erabiltzeko 35. artikulua.- Rokodromoa eta Boulderra erabiltzeko arauak 36. artikulua.- Murrizketak eta debekuak Rokodromoa eta Boulderra erabiltzeko 37. artikulua.- Padela, squasha, frontoiak eta tenis-pistak erabiltzeko arauak. 38. artikulua.- Murrizketak eta debekuak padela, squasha, frontoiak eta tenis-pistak erabiltzeko 39. artikulua.- Atletismo-pista erabiltzeko arauak 40. artikulua.- Murrizketak eta debekuak atletismo-pista erabiltzeko.</p> <p>2. KAPITULUA. GUNE HEZEA <i>(orrialdeak eta)</i></p> <p>41. artikulua.- Igerilekuak erabiltzeko arauak. 42. artikulua.- Murrizketak eta debekuak gune hezean.</p> <p>III. TITULUA. IKASTAROAK <i>(orrialdeak eta)</i></p> <p>43. artikulua.- Aplikazio-eremua 44. artikulua.- Izena emateko prozesua 45. artikulua.- Matrikula bertan behera uztea eta matrikula etetea</p> <p>IV. TITULUA. INSTALAZIOEN ETA KIROL-EKIPAMENDUAREN LAGAPENA <i>(Orrialdea)</i></p> <p>46. artikulua.- Instalazioen eta kirol-ekipamenduaren lagapena</p> <p>XEDAPEN INDARGABETZAILEA <i>(Orrialdea)</i></p> <p>AZKEN XEDAPENA. Indarrean sartzea <i>(Orrialdea)</i></p> <p>I. ERANSKINA: Fidantza klubei <i>(Orrialdea)</i></p> <p>II. ERANSKINA: Instalazioen lagapen-kontratua <i>(Orrialdea)</i></p>	<p>Artículo 27.- Tramitación de los expedientes sancionadores</p> <p>TÍTULO II. DE LAS NORMAS DE UTILIZACIÓN ESPECÍFICAS DE CADA INSTALACIÓN DEPORTIVA <i>(Páginas a)</i></p> <p>CAPÍTULO 1. ZONA SECA <i>(Páginas y)</i></p> <p>Artículo 28.- Normas generales Artículo 29.- Normas de utilización de las pistas cubiertas, frontones cubiertos, campos de fútbol e instalaciones deportivas cerradas Artículo 30.- Restricciones y prohibiciones de utilización de las pistas cubiertas, y campos de fútbol Artículo 31.- Normas de utilización de las salas de gimnasia y musculación Artículo 32.- Restricciones y prohibiciones de utilización de las salas de gimnasia y musculación Artículo 33.- Normas de utilización de las salas de Artes Marciales Artículo 34.- Restricciones y prohibiciones de utilización de las salas de Artes Marciales Artículo 35.- Normas de utilización del Rocódromo y Boulder Artículo 36.- Restricciones y prohibiciones de utilización del Rocódromo y Boulder Artículo 37.- Normas de utilización del padel, squash, frontones y pista de tenis Artículo 38.- Restricciones y prohibiciones de utilización del padel, squash, frontones y pista de tenis Artículo 39.- Normas de utilización de la pista de atletismo Artículo 40.- Restricciones y prohibiciones de utilización de la pista de atletismo</p> <p>CAPÍTULO 2. ZONA HÚMEDA <i>(Páginas a)</i></p> <p>Artículo 41.- Normas de utilización de Piscinas Artículo 42.- Restricciones y prohibiciones en zona húmeda</p> <p>TÍTULO III DE LOS CURSILLOS <i>(Páginas y)</i></p> <p>Artículo 43.- Ámbito de aplicación Artículo 44.- Proceso de inscripción Artículo 45.- Anulaciones y suspensiones</p> <p>TÍTULO IV DE LA CESIÓN DE LAS INSTALACIONES Y EQUIPAMIENTO DEPORTIVO <i>(Página)</i></p> <p>Artículo 46.- Cesión de las instalaciones y del equipamiento deportivo</p> <p>DISPOSICIÓN DEROGATORIA <i>(Página)</i></p> <p>DISPOSICIÓN FINAL. Entrada en vigor <i>(Pág.)</i></p> <p>ANEXO I: Fianza clubes <i>(Páginas)</i></p> <p>ANEXO II: Contrato cesión instalaciones <i>(Páginas a)</i></p>
--	--

Eginbidea, adierazteko agiri hat.
T Lantzen, S.A.,-ko Administrazio Kontseiluak
2016ko abenduaren 13an onartu zuela
Tolosa, 2017ko urtarrilaren an
Idazkarria:

Tolosako udaletxean, 201...-(e)ko-aren
.....-(e)an

En la Casa Consistorial de la Villa de Tolosa, a de
.....del 201...

ARRAZOIEN AZALPENA

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Usabal kiroldegiaren kudeaketan hamar urte baino gehiagoko esperientzia arrakastatsuen ondoren, eta oraingo barne araudiari eguneratze batzuk egin eta gero, Tolosako Udalak baliatu nahi du Usabal kiroldegiaren kudeaketa-kontratuaren berrikuntza, kontratu horren edukia zabaldu eta kudeaketa berrian beste udal instalazio batzuk sartzeko.

Tras más de diez años de experiencia exitosa en la gestión del polideportivo Usabal, y varias actualizaciones del reglamento interno actual, El Ayuntamiento de Tolosa quiere aprovechar la circunstancia de la renovación del contrato de gestión del polideportivo Usabal, para ampliar el contenido de dicho contrato e insertar en la nueva gestión nuevas instalaciones municipales.

Tolosako Udalaren asmoa da, batetik, araudi hori gaurkotzea, hobetzea eta Tolosako Udaleko Kirol-Zerbitzuaren inguruko zirkunstantzia berrietara egokitzea eta, bestetik, aukeraz baliatzea araudi horri beste ikuspegi bat emateko. Ideia nagusia hau da: errealitate berrietarako egokitzapena erraztea eta erabiltzaile den pertsona fisiko edo banakakoari harremanetarako marko dinamikoago bat eskaintzea zerbitzuaren hobekuntza lortzeko.

El Ayuntamiento de Tolosa pretende adaptar, mejorar y actualizar dicho reglamento a la nuevas circunstancias que rodean al Servicio Municipal de Deportes de Tolosa, y aprovechar la ocasión para darle un enfoque diferente. La idea es que principalmente facilite su adaptación a las nuevas realidades y ofrezca a la persona física o individual usuaria un marco de relación más dinámico para conseguir mejorar el servicio.

Une bakoitzean egiten den kudeaketa (zuzena edo zeharkakoa) alde batera utzita, helburua da gaur egungo instalazioen erabilera arautzea interes publiko eta orokorrekin bat etorrira.

Independientemente de la gestión que se realice en cada momento (directa o indirecta) el objetivo es reglamentar el uso de las instalaciones actuales de acorde a los intereses públicos y generales.

Halaber, asmoa da indartzea, batetik, kirol-instalazioen kogestioa eta, bestetik, erabiltzaileen, emakidadun enpresaren eta Usabal kiroldegia, Berazubi estadioa, Beotibar frontoia eta Uzturpe frontoia kirol-instalazioen jabearen arteko informazio-transmisioa indartzea. Horrela lortu nahi da, modu parte-hartzaile eta aldi berean arin batez, komunikazio-lotura iraunkorra ezartzea erabiltzaileekin.

Asimismo, se pretende potenciar la cogestión de las instalaciones deportivas y transmisión de información entre los/las usuarios/as, concesionaria y propiedad de las instalaciones deportivas (polideportivo Usabal, estadio Berazubi, frontón Beotibar y frontón Uzturpe), para que de una manera participativa, y ágil a la vez, se establezca un vínculo de comunicación permanente con los usuarios/as.

ATARIKO TITULUA

TITULO PRELIMINAR

1. Artikulua.- Xedea

Artículo 1º.- Objeto

Araudi honen xedea da arautzea, batetik, Tolosako udaleko kirol-instalazioen erabilera eta funtzionamendua, batik bat, Usabal kiroldegiarena eta Berazubi estadioarena, eta, bestetik, erabiltzaileen eskubide, betebeharrak eta erantzukizunak.

Es objeto del presente reglamento regular el uso y funcionamiento de las instalaciones deportivas municipales de Tolosa y, en especial, del polideportivo Usabal y el estadio Berazubi, así como los derechos, obligaciones y responsabilidades de los/las usuarios/as.

Usabal kiroldegiak eta Berazubi estadioak interes orokorrekotzat hartutako zerbitzu publikoak ematen dute eta, hori dela eta, instalazio horietarako sarbidea araututa dago. Hori dela eta, erabiltzaile izan daitezke bai pertsona fisikoak bai juridikoak, araudi honen baldintzak zorrotz betez gero.

El polideportivo Usabal y el estadio Berazubi prestan servicio público considerado de interés general, por lo que el acceso al mismo es regulado. En consecuencia, pueden ser usuarios del mismo, tanto las personas físicas como jurídicas, con estricta sujeción a los términos del presente reglamento.

Eginbidea, adierazteko agiri hau.
T Lantzen, S.A.,-ko Administrazio Kontseiluak
2016ko abenduaren 13an onartu zuela
Tolosa, 2017ko urtarrilaren an
Idazkaria:

<p>Hala eta guztiz ere, sarbidea honako hauek baldintzatuko dute: kirol-gune bakoitzaren aforoak eta egoeraren arabera ezartzen diren edukiera-murrizketek, dagozkion tarifen ordainketak, halakorik bada, eta ikusleak dauzkaten jarduera eta ikuskizunen kasuan aplikagarri den araudi bereziak.</p> <p>2. artikulua.- Aplikazio-eremua</p> <p>Araudi hau aplikatuko da Udalaren kirol-instalazioetan, eta bereziki, Usabal kiroldegian eta Berazubi estadioan, kudeaketa zuzena eta zeharkako kudeaketa dutenetan. Zeharkako kudeaketa duten instalazioen kasuan, Araudian jasota dauden zehaztasunak eta salbuespenak ere aplikatuko dira. Gauza bera egingo da lagapen bidez ustiatzen diren instalazioen kasuan, instalazio bakoitzari dagokion baldintza-pleguan berariaz jasotakoari dagokionez</p> <p>3. artikulua.- Instalazioen lehentasunezko erabilera</p> <p>Udaleko kirol-instalazioak izango dira, lehentasunez, jarduera fisikoa eta kirola egiteko.</p> <p>Kirol-erabilera egokiak alde batera utzita, gune horietan baimendu ahal izango dira kirolezkoak ez diren jarduerak, bateragarriak badira dauden azpiegiturekin, eta zehazten diren baldintza partikularretan, baldin eta interes orokorrekoak badira.</p> <p>4. artikulua.- Jasangarritasuna eta kalitatezko kudeaketa</p> <p>Udaleko kirol-instalazioak kudeatuko dira ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-jasangarritasuneko parametroen bitartez, Europako kalitate-parametroen arabera.</p> <p>Estamentu publikoek balio erantsi bat eman behar diegu eskainitako kirol produktu eta zerbitzuei, eta horrela lortu behar dugu erabiltzailearen beharrak asetzea ez ezik erabiltzaileak parte hartzea ere kudeaketa-prozesu osoan. Gainera, behar hauek aldatu egin dira eta orain gero eta indar handiagoa hartzen ari da bizi-kalitatearen kontzeptua jarduera fisikoa eta kirolaren bidez. Pertsonak gero eta gehiago kezkatzen dira kontzeptu hori dela eta. Beharrezkoa da, beraz, arlo sozialean, beharrak ezagutzeko inbertsioak egitea eta, beraz, kalitatezko erantzunetan azken erabiltzaileentzat. Hori dena, oreka ekonomiko eta ingurumenekoa oinarritzat harturik.</p> <p>5. artikulua.- Kalitate-kudeaketaren kontrola</p> <p>Tolosako Udala izango da, edo, haren lekuan, dagokion erakunde instrumentala, aipatutako kirol-instalazioen kudeaketaren kontrola egingo duena eta zerbitzu bakoitza egoki emateaz arduratuko dena.</p>	<p>No obstante, el acceso estará condicionado por el aforo de cada espacio deportivo y las limitaciones de capacidad que de forma coyuntural se establezcan, al pago de las tarifas correspondientes, cuando proceda, y la normativa específica aplicable en caso de actividades y espectáculos con asistencia de espectadores.</p> <p>Artículo 2º.- Ámbito de aplicación</p> <p>Este reglamento será de aplicación en las instalaciones deportivas municipales, y en especial, en el polideportivo Usabal y estadio Berazubi, cualquiera que sea su forma de gestión, directa o indirecta, con las precisiones y excepciones que para este último caso prevé la norma y sin perjuicio de lo previsto específicamente para la explotación de las instalaciones cedidas en los correspondientes pliegos de condiciones</p> <p>Artículo 3º.- Uso prioritario de las instalaciones</p> <p>Las instalaciones deportivas municipales se destinarán prioritariamente a la práctica de la actividad física y el deporte.</p> <p>Con independencia de los usos deportivos pertinentes también podrán autorizarse, en los diferentes espacios, la realización de actividades no deportivas que resulten compatibles con las infraestructuras existentes y en las condiciones particulares que se determinen siempre que sean de interés general.</p> <p>Artículo 4º.- Gestión Sostenible y de calidad</p> <p>Las instalaciones deportivas municipales serán gestionadas mediante parámetros de sostenibilidad ambiental, social y económica, según los parámetros europeos de calidad.</p> <p>Los estamentos públicos tenemos la obligación de ofrecer un valor añadido a los productos y servicios deportivos ofertados, haciendo que no solo se satisfagan las necesidades del usuario, sino que también sea partícipe de todo el proceso de gestión. Además, estas necesidades han cambiado de modo que el concepto de calidad de vida a través de la actividad física y el deporte cada vez toma más fuerza. Las personas, cada vez se preocupan más por este concepto. Es necesario, por tanto, en el ámbito social, invertir en el conocimiento de las necesidades y por tanto en soluciones de calidad para los usuarios finales. Todo ello teniendo como base el equilibrio económico y medioambiental.</p> <p>Artículo 5º.- Control de la gestión de calidad</p> <p>Será el Ayuntamiento de Tolosa o en su caso la entidad instrumental correspondiente, quien ejerza el control de la gestión de dichas instalaciones deportivas y vele por la adecuada prestación de cada servicio.</p>
--	---

Eginbidea, adierazteko agiri hau.
T Lantzen, S.A.,-ko Administrazio Kontseiluak
2016ko abenduaren 13an onartu zuela
Tolosa, 2017ko urtarrilaren an
Idazkaria:

<p style="text-align: center;"><u>I. TITULUA</u></p> <p style="text-align: center;"><u>XEDAPEN OROKORRAK</u></p> <p>1. KAPITULUA. ERABILTZAILEAK</p> <p>6. Artikulua.- Erabiltzaileak</p> <p>Erabiltzailetzat hartuko dira Araudi honetan jasotako baldintzak bete eta instalazioak erabiltzeko instalazioetara sartzen diren pertsona fisiko edo juridiko guztiak.</p> <p>Honako hauek izango dira instalazioen erabiltzaile-motak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Erabiltzaile bazkideak (abonu arrunta edo instalazio edo ordutegi batera mugatua) - Talde erabiltzailea (talde bereziak, ikastetxeak edo klubak...) - Erabiltzaile ez bazkidea - Ikastaro-egilea - Ikuslea <p>7. artikulua.- Erabiltzaile bazkideak</p> <p>Erabiltzaile bazkideatzat hartuko da baldintza hauek betetzen dituen pertsona fisikoa: eskaera-inprimakia aurkeztu eta izena eman duelarik, gaitzen duen txartela edo sartzeko dagokion gailua duena, hau da, udaleko kirol-instalazioetarako bazkide-txartela ('kirol-txartela' izenez ezaguna) eta une bakoitzean ezarritako kuotaren ordainketan egunean dagoena.</p> <p>Erabiltzaile bazkide izateko bete behar da izena emateko orria, interesatuaren sinadura eduki behar duena. Adingabeen kasuan, aurkeztu behar da filiazioa egiaztatzen duen dokumentu baten kopia, nola baita familia-liburua, jaiotze-agiria edo besteren bat, egiaztatu ahal izateko neskaren edo mutilaren izena eta jaiotze-data eta aitarekin, amarekin edo tutorearekin duen harremana.</p> <p>Aitzitik, egoera bereziak gertatzen direnean (esaterako epailearen sententziak eta abar) emakidadun enpresak eska lezake guraso bien baimen idatzia.</p> <p>Nolanahi ere, kuotak banku-helbideratzearen bidez kobratuko dira beti.</p> <p>Badago denbora baterako abonua hartzeko aukera bazkide ez direnentzat: abonua hori izango da hilabetekoa edo hamabost egunekoa.</p> <p>Bazkide izateari uzteko horretarako den inprimakia bete behar da.</p> <p>Bazkide-txartelak balio izango du ezarritako tarifen</p>	<p style="text-align: center;"><u>TITULO I</u></p> <p style="text-align: center;"><u>DISPOSICIONES GENERALES</u></p> <p>CAPÍTULO 1. DE LAS PERSONAS USUARIAS</p> <p>Artículo 6º.- De las personas usuarias</p> <p>Se considera persona usuaria a toda persona física o jurídica que, previos los requisitos previstos en este Reglamento, acceda a las instalaciones con ánimo de hacer uso de las mismas.</p> <p>Las personas usuarias de las instalaciones lo serán en calidad de:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Persona Usuaria abonada (abono normal o restringido en horario). -Persona Usuaria colectiva (grupos especiales, colegios o clubes...) -Persona Usuaria no abonada. -Cursillista -Espectador/-a <p>Artículo 7º.- De las personas usuarias abonadas</p> <p>Se considerará persona usuaria abonada aquella persona física que, habiendo formalizado su inscripción mediante presentación del impreso de solicitud, esté en posesión del título habilitante o dispositivo de acceso correspondiente, carné de abonado a las instalaciones deportivas municipales (conocida como `kirol txartela`) y se halle al corriente de pago de la cuota establecida en cada momento.</p> <p>Para hacerse persona usuaria abonada hay que cumplimentar la hoja de inscripción que deberá estar firmada por el interesado o interesada. En el caso de menores de edad deberá presentarse fotocopia del libro de familia, partida de nacimiento u otros documentos relativos a la filiación en los que se pueda comprobar el nombre y la fecha de nacimiento de la niña o el niño y la relación con el padre, la madre o la tutoría.</p> <p>Por contra cuando se den situaciones especiales (como sentencias judiciales, etc...) la concesionaria podrá exigir el consentimiento firmado de ambos padres.</p> <p>En cualquier caso, el cobro de cuotas se realizará en todo caso mediante domiciliación bancaria.</p> <p>Existe la opción de abono temporal para las personas no socias: dicho abono será mensual o quincenal.</p> <p>Para darse de baja se deberá cumplimentar el impreso correspondiente a dicha baja.</p> <p>El carné de abonado será válido mientras se esté al</p>
--	--

Eginbidea, adierazteko agiri hau.
T Lantzen, S.A.,-ko Administrazio Kontseiluak
2016ko abenduaren 13an onartu zuela
Tolosa, 2017ko urtarrilaren 9an
Idazkaria:

ordainketan egunean egonez gero. Baldin-eta bi kuota ordaindu gabe badaude, baja emango zaio bazkideari.

Instalazioetara sartzeko gailua izango da pertsonala eta besterenezina. Baldin eta, lapurtuta, galduta edo hondatuta egoteagatik berria egin behar bada, ordaindu egin beharko da bere garaian ezarritako diru-kopurua.

8. artikulua.- Talde erabiltzaileak

Talde erabiltzailetzat hartuko da baldintza hauek betetzen dituen pertsona fisikoen taldea: bai hitzarmen bidez Kirol zerbitzuarekin (klubak, e.a.) edo instalazioaren emakidadunarekin erreserba programatua duena, bai unean-unean kirol-instalazioak erabiltzen dituen, jarduera zehatz baterako eta/edo ordutegi jakin batean. Arduradun bat izendatu beharko da talde erabiltzaile bakoitzeko.

Kirol-taldeak eta eskola-kirolekoak, beren aldetik joan ahal izango dira Tolosako kirol-instalazioetara beraientzat Tolosako Udalak ezartzen dituen ordutegietan. Ordutegi horiek adostu beharko dira kirol-guneetako arduradunekin, erreserbatzen diren egun eta orduak islatu beharko direlarik udaleko kirol-instalazioen kudeaketaren adjudikazioa arautzen duen Klausula Administratibo eta Teknikoen Agirian. Dena dela, baldin eta Tolosako Udalak, edo, halakorik badago, dagokion erakunde instrumentalak, erreserba hori ez nahikotzat jotzen badute, adjudikazioa duen enpresarekin negoziatu ahal izango du bera zabaltzea.

Instalazioetara sartzen diren klub, talde eta kolektiboetako kide guztiek behar dute harpidedunak izan edo klubaren bonua tramitatu (eskubidea ematen duena entrenamendu-ordutegian bakarrik sartzeko) dagokion jarduera hasi baino lehen.

Kluben, eskola-kiroleko taldeen eta beste talde batzuen jarduerak zuzen gara daitezten, kirol-denboraldi bakoitzaren hasieran Udalak emango du ordutegi-taula bat non argi eta garbi adieraziko diren datu hauek: kluba edo erakunde erabiltzailea, garatu beharreko jarduera, jardueraren edo taldearen maila eta partaide-kopurua.

Ordutegi-banaketa honetan sartutako klub, talde eta horrelakoek errespetatu behar dute beti Tolosako Udalak edo, halakorik badago, dagokion erakunde instrumentalak ezarritako ordutegia, eta ordutegiaren aldaketak, edozein dela ere, aste bat lehenago aurkeztu behar zaio emakidadunari, zeinak aldaketa egiteko aukera aztertu eta baloratu egingo duen.

Beren jarduerak egiteko, kirol-klubak eta bestelako taldeak kiroldegira sartu ahal izango dira esleitutako ordua baino 15 minutu lehenago. Ligako partidak edo/eta lagunartekoak direnean, betiko bideetatik jakinaraziko da zein ordutan iritsiko den instalaziora eta berotze-eraketak noiz hasiko diren.

corriente en el pago de las tarifas establecidas. En caso de impago de dos cuotas, se procederá a dar de baja a la persona abonada.

El dispositivo de acceso será personal e intransferible. La confección de un nuevo por robo, pérdida o deterioro obligará al pago de la cuantía que oportunamente se establezca.

Artículo 8º.- De las personas usuarias colectivas

Se considerará persona usuaria colectiva aquel grupo de personas físicas que, o bien mediante convenio, reserva programada con el Servicio de Deportes (clubes etc,...) o el concesionario de la instalación, o bien puntualmente, utiliza las instalaciones para una actividad concreta y/o en un horario determinado. Deberá nombrarse un responsable por cada usuario/a colectivo/a.

Los clubes deportivos y el deporte escolar, como tales, podrán acudir a las instalaciones deportivas de Tolosa en los horarios que para ellos disponga el Ayuntamiento de Tolosa. Dichos horarios deberán ser acordados con los espacios deportivos, reflejándose los días y horas que se reserven para entrenamientos en el Pliego de Cláusulas Administrativas y Técnicas que regule la adjudicación de la gestión de las instalaciones deportivas municipales. No obstante, si el Ayuntamiento de Tolosa o en su caso la entidad instrumental correspondiente, considerarán esta reserva inadecuada o insuficiente, podrá negociar con la empresa adjudicataria la ampliación de la misma.

Todos los participantes de los clubes, colectivos, etc. con acceso a la instalación deberán ser abonados o tramitar el bono club (con derecho a solo acceso durante el horario de entrenamiento) antes del inicio de la actividad que se trate.

Para el correcto desarrollo de las actividades de los clubes, deporte escolar y otros colectivos, el Ayuntamiento entregará al principio de cada temporada deportiva, el cuadro de horarios en los que se indicará claramente el club o entidad usuaria, la actividad a desarrollar, la categoría del equipo o actividad y el número de componentes.

Los clubes, colectivos, etc. incluidos en esta distribución de horarios, respetarán en todo momento el horario establecido por el Ayuntamiento de Tolosa o en su caso, y cualquier modificación del mismo deberá ser presentada con una semana de antelación a la concesionaria, quien estudiará y valorará la posibilidad de su modificación.

Los clubes deportivos y otros colectivos para el desarrollo de sus actividades, podrán acceder al polideportivo con una antelación de quince minutos sobre el horario asignado. En el caso de los partidos de liga y/o amistosos, se comunicará a través de cauces habituales el horario de llegada a la instalación y comienzo del calentamiento.

La persona usuaria colectiva responderá de los daños y

Eginbidea, adierazteko agiri ha.
T Lantzen, S.A.,-ko Administrazio Kontseiluak
2016ko abenduaren 13an onartu zuela
Tolosa, 2017ko urtarrilaren an
Idazkaria:

<p>Talde erabiltzaile bakoitzak bere gain hartuko ditu taldeko edozein pertsonak instalazioak erabiltzean egiten dituen kalteak. Taldearen portaera ona ere talde erabiltzailearen ardura izango da, instalazioetan sartzen denetik atera arte.</p> <p>9. artikulua- Erabiltzaile ez bazkideak</p> <p>Erabiltzaile ez bazkideak hartuko da dagokion zenbatekoa ordaindu ondoren instalazio jakin batera sartzen den erabiltzailea. Gaitzen duen txartel bat emango zaio, eta irten arte gorde beharko du txartela.</p> <p>10. artikulua.- Ikastaro-egileak</p> <p>Ikasletzat hartuko da baldintza hauek betetzen dituen pertsona: eskaera-inprimakia aurreikusitako tokietako edozeinetan aurkeztuta izena eman duena, ikastaroan onartzen dutena eta dagozkion kuotak ordaintzen egunean dagoena.</p> <p>Egiaztagiri bat emango zaio, eta agiri hori aurkeztu beharko du instalazioetara sartzean. Dokumentu hori pertsonala eta besterenezina izango da.</p> <p>11. artikulua.- Ikusleak</p> <p>Jardueraren eta instalazioaren ezaugarriek zehaztuko dute nolakoa izango den ikusleen sarrera. Jarduera antolatu duen erakundeak izango du ikusleen jarreraren erantzukizuna.</p> <p>12. artikulua.- Erabiltzaile izateari uztea</p> <p>Araudi honetan ezarritakoa ez betetzeak berekin ekar lezake erabiltzaile-izaeraren galera eta, horren ondorioz, instalazioetara sartzeko debekua.</p> <p>Halaber, kirol-jarduerako bazkideak kenduko zaie ondoko bi kuota ordaintzen ez duten erabiltzaileei.</p> <p>Zerbitzua utzi nahi izanez gero, horretarako dagoen inprimakia bete beharko da. Behin erabiltzaile-izaera galduz gero, sarrera-kuota edo "matrikula" ordaindu beharko da atzera bazkide izan eta instalazioetara berriz sartuko bada.</p> <p>2. KAPITULUA. ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK, BETEBEHARRAK ETA ERANTZUKIZUNAK</p> <p>13. artikulua.- Erabiltzaileen eskubideak</p> <p>13.1 artikulua.- Erabiltzaileen eskubidea</p>	<p>desperfectos que cualquier persona del grupo ocasione durante la utilización de las instalaciones, así como se responsabilizará de buen comportamiento del grupo desde el acceso hasta la salida de la instalación.</p> <p>Artículo 9º.- De las personas usuarias no abonadas</p> <p>Se considerará persona usuaria no abonada aquella que, previo pago del importe correspondiente, acceda a una instalación concreta. Se le entregará un título habilitante que deberá conservar hasta la salida.</p> <p>Artículo 10º.- De las personas cursillistas</p> <p>Se considerará cursillista aquella persona que habiendo formalizado su inscripción mediante la presentación del impreso de solicitud en cualquiera de los lugares previstos, sea admitida al cursillo y se halle al corriente en el pago de las cuotas correspondientes.</p> <p>Se extenderá un documento acreditativo que deberán presentar en el acceso a las instalaciones. Dicho documento será personal e intransferible.</p> <p>Artículo 11º.- De los/as espectadores/as</p> <p>El acceso de espectadores estará determinado por las características de la actividad y de la instalación, siendo la entidad organizadora de la actividad concreta la responsable del comportamiento los/as espectadores/as.</p> <p>Artículo 12º.- Pérdida de la condición de persona usuaria</p> <p>El incumplimiento de lo establecido en el presente reglamento podrá llevar consigo la pérdida de la condición de persona usuaria con prohibición de acceder a las instalaciones.</p> <p>Asimismo, se darán de baja las personas usuarias de las actividades deportivas por impago de dos cuotas consecutivas.</p> <p>Para darse de baja voluntariamente del servicio se deberá rellenar el impreso correspondiente. Una vez perdida la condición de usuario/a, deberá pagarse nuevamente la cuota de entrada o "matrícula" para poder abonarse y acceder nuevamente al servicio o a las instalaciones.</p> <p>CAPITULO 2.- DE LOS DERECHOS, OBLIGACIONES Y RESPONSABILIDADES DE LOS USUARIOS</p> <p>Artículo 13.- Derechos de las personas usuarias</p> <p>13.1.- Derecho de las personas usuarias:</p>
---	---

Eginbidea, adierazteko agiri hau.
T Lantzen, S.A.,-ko Administrazio Kontseiluak
2016ko abenduaren 13an onartu zuela
Tolosa, 2017ko urtarrilaren 11
Idazkarria:

<p>Erabiltzaile guztiek izango dituzte eskubide berberak Usabal Kiroldegia eta/edo Berazubi estadioa erabiltzeko eta haietaz gozatzeko garaian. Zehazki hauek dira eskubideok:</p> <p>a) Instalazioak erabiltzeko eskubidea, egutegi, ordutegi eta gainerako erabilpen-baldintzak betez.</p> <p>b) Instalazioetan zerbitzuak ematen dituzten langileek eta gainerako erabiltzaileek errespetuz eta begirunez hartzeko eskubidea.</p> <p>c) EAEko edozein hizkuntza ofizialetan zerbitzua jasotzeko eta harremanak izateko eskubidea.</p> <p>d) Tolosa Udalari zerbitzuaren funtzionamenduaren gaineko kexak, iradokizunak eta erreklamazioak proposatzeko eskubidea.</p> <p>e) Instalazioak erabiltzeko baldintzei eta instalazioetan ematen diren zerbitzuei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea, eskatzen diren dokumentuak, nola baitira, salneurriak, erreklamazio-orriak, egutegiak, ikastaroak, e.a..., emango direlarik une bakoitzean dauden mekanismoen bitartez (bulegoak, weba, e-maila, sare sozialak...)</p> <p>f) Tolosako Udalari aplikagarri diren araudiek xedatutakoa bete dezala eskatzeko eskubidea.</p> <p>g) Irekitako diziplina-espedienteen deskargua aurkezteko eskubidea eta udal akordioak denboraz eta formaz errekurrizko eskubidea.</p> <p>h) Noiznahi zerbitzuko edozein langileri identifikazioa eskatzeko eskubidea, behar diren erreklamazioak egiteko.</p> <p>i) Indarrean dagoen legeriak, Araudi honek nahiz beste Udal Araudi batzuek aitortutako beste edozein eskubide.</p>	<p>Todos los/las usuarios/as poseerán idénticos derechos respecto al uso y disfrute de Usabal Kiroldegia y/o el estadio Berazubi, que se concretan en los siguientes:</p> <p>a) Utilizar las instalaciones conforme al calendario, horario y demás condiciones de uso.</p> <p>b) Ser tratados/as con respeto y deferencia por el personal que presta sus servicios en las instalaciones y por el resto de usuarios.</p> <p>c) Recibir el servicio y comunicarse en cualquiera de las lenguas oficiales de la CAPV.</p> <p>d) Proponer al Ayuntamiento de Tolosa cuantas peticiones, sugerencias o quejas consideren sobre el funcionamiento del servicio.</p> <p>e) Ser informado sobre las condiciones de uso de las instalaciones y servicios que se presentan en las mismas, con entrega de documentos que se soliciten tales como reglamentos, precios, hojas de reclamación, calendarios, cursillos, etc..., mediante los mecanismos existentes en cada momento (oficinas, web, email, redes sociales ...)</p> <p>f) Exigir del Ayuntamiento de Tolosa el cumplimiento por su parte de cuanto disponga la normativa aplicable.</p> <p>g) Presentar descargo de los expedientes disciplinarios que se formulen así como recurrir el tiempo y forma ante los acuerdos municipales.</p> <p>h) Solicitar en cualquier momento la identificación de cualquiera de los trabajadores/as del servicio, a los efectos de realizar reclamaciones correspondientes.</p> <p>i) Cualquier otro derecho que venga recogido por la legislación vigente, por este Reglamento y por otros Reglamentos Municipales.</p>
<p><u>13.2.- Elbarrien eta mugikortasun urriko erabiltzaileen eskubideak:</u></p>	<p><u>13.2.- Derecho de las personas minusválidas y de movilidad reducida:</u></p>
<p>Aurreko puntuan adierazitako eskubideez gain, honako eskubide hauek aitortzen zaizkie erabiltzaile horiei:</p> <p>- Arreta eta lehentasuna izateko eskubidea dute. Instalazioan dauden bitartean, bertako langileak eurekin egoteko eskatu ahal izango dute, bai eta kirol-jarduera egitera sartzeko eta irteteko eta jarduera egiteko prozesu osoan laguntza emateko ere. Instalazioekin zerikusirik ez duen beste pertsonaren batekin etortzean, pertsona horrek ez du sarrera ordaindu beharko.</p>	<p>Además de los derechos señalados en el punto anterior se reconoce a estas personas usuarias el derecho a:</p> <p>Disfrutar de atención personalizada y preferente, pudiendo solicitar que el personal de las instalaciones les acompañe durante su acceso de entrada y salida y desarrollo de la práctica deportiva. Cuando vengán acompañados por otra persona ajena a las instalaciones, esta última no deberá abonar la entrada.</p>
<p><u>13.3.- Bazkide ez diren erabiltzaileen eskubideak</u></p> <p>Usabal kiroldegira edo Berazubi estadiora eguneko sarreraren bitartez sartzen diren erabiltzaileak instalaziotik</p>	<p><u>13.3.- Derecho de las personas usuarias no abonadas</u></p> <p>En el caso de entrada al polideportivo Usabal o el estadio Berazubi mediante la fórmula de entrada diaria, permitirá al usuario abandonar la instalación y volver a ella sin abonar</p>

Eginbidea, adierazteko agiri hau.
T Lantzen, S.A.,-ko Administrazio Kontseiluak
2016ko abenduaren 13an onartu zuela
Tolosa, 2017ko urtarrilaren an
Idazkaria:

<p>atera eta bertara itzuli ahal izango dira eta beragatik ez dute berriz ordaindu beharrik izango. Alegia, sarrerak egun osorako balio izango du, baina pertsona bakar batentzako izango da.</p>	<p>nuevamente el importe por ello. Es decir la entrada tendrá validez durante todo el día, pero específicamente para una sola persona.</p>
<p>14.artikulua.- Erabiltzaileen betebeharrak</p>	<p>Artículo 14.- Obligaciones de las personas usuarias</p>
<p>Erabiltzaileen betebeharrak hauek izango dira gutxienez:</p>	<p>Las obligaciones de la persona usuaria serán al menos las siguientes:</p>
<p>a) Instalazioak Araudi honetan xedatutakoaren eta langileek instalazioa erabiltzeko emandako oharren arabera erabiltzekoa. Horrez gain, errespetatu egin behar da zerbitzuarekin erlazionatuta jartzen diren karteletan, bestelako adierazleetan eta megafoniako komunikatuetan adierazitakoa.</p>	<p>a) Utilizar las instalaciones de conformidad a lo dispuesto en este Reglamento y a las indicaciones de uso del personal de las instalaciones. En todo caso, se debe de respetar lo dispuesto en los carteles u otros indicadores, así como lo comunicado por megafonía, en aquellos temas relacionados con el servicio.</p>
<p>b) Erabiltzaileek egoera onean utzi beharko dituzte erabiltzeko instalazioak, hurrengo erabilerarako. Bestalde, erantzukizuna bere gain hartuko dute, osorik eta zuzenean hartu ere, instalazioak erabiltzean egin litzaketan kalte eta galerengatik, bai-eta lokal edo eraikineko gainerako aretoetan egindakoak eta baimendutako jardueraren ondorioz pertsona fisikoek jasandakoak ere.</p>	<p>b) Las personas usuarias deberán dejar las instalaciones utilizadas en perfecto estado para el uso siguiente. Por otra parte, asumirán la responsabilidad plena y directa por los daños y perjuicios que se produzcan en las instalaciones durante la utilización de las mismas, así como los ocasionados en las demás dependencias del local o edificio y los sufridos por personas físicas como consecuencia de la actividad autorizada.</p>
<p>c) Instalazioetara sartzeko behar den txartela aurkeztekoa, eta, eskatzen baldin bazaio, NANA edo identifikatzeko beste agiri ofizialen bat erakustekoa.</p>	<p>c) Presentar el título habilitante para el acceso a las instalaciones y, cuando sea requerido, el DNI u otro documento oficial de identificación.</p>
<p>d) Usabal kiroldegia eta/edo Berazubi estadioa erabiltzeko interesa duten guztiek ordaindu behar dute erabiltzaileentzat ezarritako tarifa zehazten den moduan.</p>	<p>d) Todos los interesados en la utilización del polideportivo Usabal y/o el estadio Berazubi están obligados a abonar como usuarios la tarifa establecida en la forma que se determine.</p>
<p>e) Eguneko sarrerak eta bazkide-kuotak ezingo dira itzuli baldin eta ezarritako tarifen eta araudi honetan aurreikusitakoaren arabera ordaindu badira.</p>	<p>e) El importe de las entradas diarias y las cuotas de abonado no podrán ser objeto de devolución una vez satisfechas conforme a las tarifas establecidas y lo previsto en el presente reglamento.</p>
<p>f) Udaleko kirol-instalazioak erabiltzen dituztenek begirune eta errespetuzko jarrerak izango dituzte beti gainerako erabiltzaileekin eta instalazioen ardura duten langileekin. Azken hauekiko harremani dagokienean, bete beharko dituzte jasotzen dituzten ohar eta instrukzio guztiak, hala instalazioen ordena eta funtzionamendu onaren gainean, nola materialen eta zuzkiduren antolaera eta erabileraren gainean.</p>	<p>f) Las personas usuarias de instalaciones deportivas municipales mantendrán en todo momento actitudes de consideración y respeto hacia los demás usuarios y hacia el personal encargado de las instalaciones. En su relación con éstos últimos estarán obligados al cumplimiento de cuantas instrucciones u observaciones reciban sobre el buen orden y funcionamiento de las instalaciones, y sobre la disposición y utilización de materiales y dotaciones.</p>
<p>g) Usabal kiroldegia eta/edo Berazubi estadioa eguneko sarrera edo bonu bat ordainduta erabiltzen denean, erabiltzaileak tiketak berekin eduki behar ditu erabileraren aldi osoan.</p>	<p>g) En el periodo de utilización del polideportivo Usabal y/o el estadio Berazubi, mediante pago de entrada diaria o abono, el usuario está obligado a conservar en su poder los tiques correspondientes.</p>
<p>h) Indarrean dagoen legeriak, Araudi honek eta eskudun organoaren ebazpenek ezarritako beste edozein betebeharrak.</p>	<p>h) Cualquier otra obligación que venga impuesta por la legislación vigente, por este Reglamento; y por resolución del órgano competente.</p>
<p>15. artikulua.- Erantzukizunak</p>	<p>Artículo 15.- Responsabilidades</p>
<p>Egindako erabileraren zuzeneko erantzulea izango da</p>	<p></p>

Eginbidea, adierazteko agiri hau.
T Lantzen, S.A.,-ko Administrazio Kontseiluak
2016ko abenduaren 13an onartu zuela
Tolosa, 2017ko urtarrilaren an
Idazkaria:

<p>baimenaren titularra, salbu ordezkari bat dela egiaztatzen badu. Kasu horretan ordezkatuak izango du erantzukizuna.</p> <p>Adingabeen segurtasunaren arduradunak dira, bakar-bakarrik, beren gurasoak edo beraiekin datozen pertsona helduak. Beroriek ere izango dira erantzuleak adingabe horiek udaleko kirol-instalazioen funtzionamendu-arauak hausten badituzte.</p> <p>Erabiltzaileak izango dira instalazioei edo hirugarrengeoi egiten dizkieten kalteen erantzuleak baldin-eta erabilera txarra edo portaera bidegabea izan dutela egiaztatzen bada.</p> <p>Talde erabiltzaileak edo klubak erantzungo du taldeko edozein kidek instalazioak erabiltzean egindako kalte eta galerengatik, eta orobat arduratuko da, taldea instalaziora sartzen denetik atera arte, beraren portaera ona izan dadin. Hartarako, urteko fidantza bat jarriko da kaltetutako ekipamenduaren berrikuntza bermatuko duena.</p> <p>Ekitaldi bereziak antolatzen dituzten erakundeak izango dira instalazioei edo hirugarrengeoi egindako kalteen erantzule.</p> <p>Emakidaduna ez da izango instalazioak desegoki edo arduragabekeriak erabiltzeagatik erabiltzaileek jasan ditzaketen istripuen erantzule.</p>	<p>Se considerará responsable directo/a del uso realizado al titular de la autorización, salvo que acredite la representación que ostenta, en cuyo caso la responsabilidad recaerá sobre el representado.</p> <p>La seguridad de los menores de edad es responsabilidad única de sus padres o de las personas adultas que los acompañen, quienes también se harán responsables en caso de incumplimiento por aquellos de las normas de funcionamiento de las instalaciones deportivas municipales.</p> <p>Las personas usuarias serán responsables de los daños que ocasionen a las instalaciones o a terceros siempre que se demuestre uso o comportamiento indebido.</p> <p>La persona usuaria colectiva o club responderá de los daños y desperfectos que cualquier persona del grupo ocasione durante la utilización de las instalaciones, así como se responsabilizará de buen comportamiento del grupo desde el acceso hasta la salida de la instalación. Para ello, se depositará una fianza anual que garantizará la reposición del equipamiento dañado.</p> <p>Las entidades organizadoras de eventos especiales responderá de los daños y desperfectos ocasionados a las instalaciones o a terceros.</p> <p>La concesionaria no responderá de los accidentes que puedan sufrir los usuarios por utilización inadecuada o imprudente de las instalaciones.</p>
<p>3. KAPITULUA. KIROL INSTALAZIO GUZTIAK ERABILTZEKO ARAU KOMUNAK</p>	<p>CAPÍTULO 3. DE LAS NORMAS COMUNES DE UTILIZACIÓN DE TODAS LAS INSTALACIONES</p>
<p>16. artikulua.- Kirol-instalazioetara sartzea</p>	<p>Artículo 16.- Acceso a las instalaciones deportivas</p>
<p>Usabal kiroldegi, Berazubi estadio eta beste instalazio batzuen irekierak eta funtzionamenduak segituko diete Udalak edo dagokion erakunde instrumentalak urtero ezarritako egutegi, ordutegi eta erabilerei.</p> <p>Aipatutako egutegiak zehaztuko du Usabal kiroldegia eta Berazubi estadioak zein egunetan egongo diren zerbitzutik kanpo eta zein diren arloari dagokion lan-egutegiak jarritako jaiegunak.</p>	<p>La apertura y funcionamiento del polideportivo Usabal y el estadio Berazubi y otras, se guiará por el calendario, horarios y usos que establezca anualmente el Ayuntamiento o la entidad instrumental correspondiente.</p> <p>El citado calendario precisará las fechas en las que el polideportivo Usabal y el estadio Berazubi vayan a permanecer fuera del servicio deportivo y los días declarados festivos por el calendario laboral correspondiente.</p>
<p>17. artikulua.- Kirol-instalazioetarako sarreren kontrola</p>	<p>Artículo 17.- Control de accesos a las instalaciones deportivas.</p>
<p>Instalazioetara sartzeko, erabiltzaileek, edo, bestela, taldearen arduradunak horretarako baimena ematen duen txartela aurkeztu beharko dute. NANA edo identifikatzeko beste edozein agiri ofizial ere aurkeztu beharko da halakorik eskatuz gero.</p> <p>Udal instalazioen bazkide-txartela da pertsonala eta besterenezina. Hori dela eta, txartela era desegokian erabiltzeak berekin ekarriko du txartela kentzea eta</p>	<p>Para acceder a las instalaciones, las personas usuarias o el responsable de grupo, en su caso, deberán presentar el título habilitante y, cuando sea requerido, el DNI u otro documento oficial de identificación.</p> <p>El carné de abonado de las instalaciones municipales es personal e intransferible, por lo que el uso indebido del</p>

Eginbidea, adierazteko agiri hau.
T Lantzen, S.A.,-ko Administrazio Kontseiluak
2016ko abenduaren 13an onartu zuela
Tolosa, 2017ko urtarrilaren 11n
Idazkaria:

<p>dagokion zigorra jartzea.</p> <p>Berez eskubide batzuk ematen dituen identifikazio pertsonaleko zedula bat nola baita, manipulazio bat, edozein dela ere, egiten bazaio, araudi honetan aurreikusitako zigorrak jarriko dira, manipulazio horretatik etorri litezkeen erantzukizun penalak eragotzi gabe.</p> <p>Tolosako Udalak edo, halakorik badago, dagokion erakunde instrumentalak eskuduntzak dauzkate zirkulazioan dauden bazkide-txartel guztiak egoki iruditzen zaionean indarrak gabe uzteko. Kasu horretan, txartelak trukatu beharko dira, derrigorrez, beste txartel berri batzuentzat, horretarako ezartzen epearen barruan.</p> <p>Galarazita dago instalazioetara animaliak sartzea, egin beharreko kirol-jarduerak animaliaen bat erabiltzea eskatzen ez bada edo behar bezala baimendutako egoera jakin bat ez bada, behintzat.</p> <p>Libre izango da pertsona minusbaliatuekin eguneroko joan-etorrietan dabiltzan gida-txakurrak haienzako egokitutako tokietara sartzea.</p> <p>Aforoak: Instalazioari baimendutako aforoa betetzen bada, ez zaio jende gehiagori bertara sartzen utziko.</p> <p>Egoerak eskatzen duenean instalazioetarako sarrera mugatzeko, bazkideek izango dute bertara sartzeko lehentasuna.</p> <p>Gomendatutako aforoak instalazio bakoitzaren autobabes-planaren arabera.</p>	<p>mismo supondrá su retirada y la aplicación de la correspondiente sanción.</p> <p>Por tratarse de una cédula de identificación personal que, por si misma, concede determinados derechos, cualquier manipulación que se produzca en ella dará lugar a las sanciones previstas en este reglamento, sin perjuicio de las responsabilidades penales que, en su caso, se deriven.</p> <p>El Ayuntamiento de Tolosa o en su caso la entidad instrumental correspondiente disponen de atribuciones para anular cuando lo estime procedente todos los carnés de abonado existentes en circulación, estableciendo el canje obligatorio por otros nuevos en el plazo que se determine.</p> <p>Está prohibido el acceso de animales en las instalaciones, salvo que la propia actividad deportiva que se vaya a desarrollar implique el empleo de animales o situaciones concretas debidamente autorizadas.</p> <p>Se permite el acceso a los lugares habilitados para ello, a los perros-lazarillos que acompañen a los usuarios invidentes en su recorrido habitual.</p> <p>Aforos:</p> <p>En caso de alcanzarse el aforo asignado a la instalación, se impedirá el acceso de más personas al recinto.</p> <p>Cuando las circunstancias impongan una limitación de acceso a las instalaciones, tendrán prioridad de acceso a las instalaciones los abonados a las mismas.</p> <p>Aforos aconsejados según el plan de autoprotección de cada instalación.</p>
---	---

Usabal kiroldegia:		Berazubi estadioa		Beotibar frontoia	
Kanpoko igerilekua		Kirolarien gunea		Kirolarien gunea	
Haurren putzua	70 lagun	Gimnasioak	161 lagun	Kantxa	8
Helduen putzua	180 lagun	Padela eta tenisa	28 lagun		
Kanpoko solariuma	1500 lagun	Atletismo-pista	161 lagun	Ikusleen gunea	
Barruko igerilekua:		Atletismo-pista estalia	40 lagun	0 solairua	
Haurren putzua	38 lagun	Aldagelak	82 lagun	1solairua	
Helduen putzua	170 lagun	Bulegoak eta administrazioa	63 lagun	2 G1solairua	
Hidromasajea	70 lagun			2 G2 solairua	
Kantxak:		Ikusleen gunea		AFORO OSOA	1250
Kantxa nagusia	900 lagun	Harmaila nagusia (eserlekuak)	648 lagun		
Kantxa -1	500 lagun	Zutik egoteko harmaila	600 lagun	Uzturpe frontoia	
Fitnessa	80 lagun			Kirolarien gunea	

Eginbidea, adierazteko agiri hau
T Lantzen, S.A.,-ko Administrazio Kontseiluak
2016ko abenduaren 13an onartu zuela
Tolosa, 2017ko urtarrilaren an
Idazkarria:

Jatetxea:				Kantxa	8
Eserita	200 lagun				
Zutik	76 lagun			Ikusleen gunea	650
AFORO OSOA	3556 lagun	AFORO OSOA	1882 lagun	AFORO OSOA	658
EDUKIERA OSOA	4671 lagun	EDUKIERA OSOA	2740 lagun		

Polideportivo Usabal:		Estadio Berazubi		Frontón Beotibar	
Piscina exterior		Zona deportistas		Zona deportistas	
Vaso infantil	70 personas	Gimnasios	161 personas	Cancha	8
Vaso adultos	180 personas	Padel y tenis	28 personas		
Solarium exterior	1500 personas	Pista de atletismo	161 personas	Zona espectadores	
Piscina interior:		Pista de atletismo cubierta	40 personas	Planta 0	
Vaso infantil	38 personas	Vestuarios	82 personas	Planta 1	
Vaso adultos	170 personas	Oficinas y administración	63 personas	Planta 2 G1	
Hidromasaje	70 personas			Planta 2 G2	
Canchas:		Zona espectadores		TOTAL AFORO	1250
Cancha principal	900 personas	Grada principal (asientos)	648 personas		
